


c.1912

Singerren bigotia



"Singer-en bigotia", Miguel Oñate, 1907-14 artekoa



Markuesen txistea

Esaten da Casimiro Etxeberriak asmatu zuela Anteron txamarrotia kanta, ez gara gu izango horren kontra egingo dugunak baina hemen dakarkizuegun partitura Lekeitioko bandako zuzendariak sinatzen du, M. Oñatek. Egia esan, partituran agertzen den bakarra da Miguel Oñatek moldatu zuela: "Singer-en bigotia" *Pasodoble Arreglado para banda y piano por M. Oñate*¹.

Miguel Oñate 1907an aukeratu zuten Lekeitioko bandako zuzendari eta 1914an utzi zuen kargua osasun arazoak medio. Partiturari dagokionez, beraz, ez dago dudarik 1907-14 bitartekoa dela. Eta kanta? Noizkoa da? Baliteke kanta lehe-

nagokoa izatea, Casimirok (1852-1924) berak asmatutakoa, baina zelan frogatu?

Denok ezagutzen ditugu Singer, Enrique García Vara eta Antero Salinas, kantako pertsonaiak. Bata Madrilan jaioa 1870ean baina txiki-txikitan Lekeitiara etorria eta bestea Lekeition jaioa 1874an, biak oraindik bizirik 1914. urtean, beraz behintzat badakigu 1914. urtea baino beranduagokoa ez dela abestia. Eta hemen gelditzen gara preso, ez aurrera ez atzera; Casimiroren autoretza tradizioan oinarritzen da, esan eta entzundakoan eta tentuz ibili behar dugu halakoe-tan. Ea Fernando Garateak argitzen duen misterioa!

¹ Ez ditugu bazterrak nahastu nahi, baina 1914an zuzendaritza utzi zuenean Udalari idatzi zion kartan zioen 150 musika konposizio baino gehiago idatzi zituela Lekeitioko elementuak kontuan hartuta. Ez zen egongo horien artean Anteron Txamarrotia? Eta Casimiro-rena izanda beste zuzendari bati utzi moldatzen?



Misterio baten faltan bi. Singerren ustezko karikatura heldu zaigu ohikoa denez inguruko informazio barik. Familia-koek Singer dela diote eta hala agertu zen jai-programa batean. Gu pozarren egongo ginateke hala balitz baina deabruaren abokatuaren egitekoa dagokigu.

Karikatura sinatuta dago, Navarrete 1912 eta ez dago du-darik Francisco Navarrete Sierrak (1870-?) egindako karikatura dela Sarean eskegita dauden haren beste karikatura batzuen sinadura berbera duelako. Marrazkilari ospetsua izan zen bere garaian, *The Monigoty* aldizkari satirikoa fundatu zuen 1897an Joaquín Xaudarórekin batera (Espainiako lehenengo tebeoa) eta beste aldizkari batzuetan ere erakutsi zuen bere obra: *Pan y toros, Madrid cómico, Nuevo Mundo...*

Gero, Sarean ordu dezente sartuz, jakin dugu Hego Amerikara joan zela. Bere marrazkiak aurkitu ditugu Argentinako *El Gladiador* aldizkarian, 1902-1904 artean eta *P. B. T.* aldizkarian 1904-06 artean (berea da lehen zenbakiko azala). Gero Chilen barrena dabil 1907-09 arte gutxienez. Hango *Zig Zag* eta *Sin Sal* aldizkarietan egingo du lan. Ez dakigu noiz baina Argentinara bueltatuko da. 1911ko uztailaren 26ko *La Vida moderna* aldizkariko azala berea da eta gutxienez 1912ko azarotik 1917ra arte *Fray Mocho* aldizkarian agertuko da. Beraz, ezin dugu ziurtatu 1912an Espainian egon ez zenik, posible da baina ez probable.


Hori kontuan izanda, frogatu behar dena da karikaturagile horrek Singer ezagutzen zuela eta ezagututa haren karikatura egin zuela. Berriro geratu gara preso, tximiñoien antzera!

Hala ere, enpatxua librateko ahaleginak egingo ditugu. Arrastoak utzi ditu karikaturak: igorlearen izena, Federico, ilobei zuzendua zela, 1912an bidali zela, Garcia-Arteagabeitiarren etxera heldu zela. Bestalde badakigu Navarrete Argentinan bizi zela, Federico Perea Argentinara joan zela...

Karikaturak zera dakar:

Cuando mis sobrinas vean a un tío tan gordito (ulertezi-na) se reynan un poquito
Federico 21-11-912

Hemen gure pelikula: Federico Perea Iturrioz izan zen karikatura bidali zuena Argentinatik, ez dakiguna da bera ala beste bat zen karikaturan agertzen dena. Oso gazte joan zen Federico aulestiarra Argentinara eta han fortuna egin zuen familiak dioskunez. Haren ilobetako bat zen Aureliana Arteagabeitia Perea, nagusitan Juan Garcia Etxebarrietarekin ezkonduko zena. Horien etxean agertu zen karikatura eta bibote luze horrek horien ondorengoak errarazi zituen, pentsaraziz Enrique Garciarenak, Singerrenak, zirela (Juan Garciaren osaba zen Singer).



Juan Rana aldizkariko Navarrete karikaturistaren karikatura